

# SANTA AGEDA 2025



# HISTORIA APURTXU BAT

Santa Agata jaia edo Dona Agata jaia legez izendatzen omen da. Baina jaiak berak argi utzi du herrian-herrian nortasun berezi bat hartzen duela. Eta Durangaldean Santa Ageda legez ezagutzen dugun jaia da otsailaren 5koa. Baina gutxik ezagutzen du egunaren jatorria. Merezi duelako ezagutza, goazen ikertzera.

Tradizioari jarraiki, bazen Agata izeneko emakume bat Catanian, Sizilian, jaio zena 235. urtean. Heriotzara eraman zuen gertaerak bere istorioa gaurdaino entzutea ekarri du. Quinciano gobernadorea zenak ezkontzeko proposamena egin zion, baina Agatak ez zuen gurari hori. Gobernadoreak, agintari postutik bere nahia bete ezinda, mendeku gisa kartzelatu zuen. Bularrak moztu eta hil arteko torturak sufritu izan zituen Agatak. Bera omentzeko, otsailaren 5-a aukeratu zuen katolizismoak.

Baina ospakizunak berak Garai paganoetan du jatorria, Agataren inguruko festek zerikusi handia dute inauteriekin, inauste edo kimatze garaiko erritoekin. Santa Agata askotan bere gisa irudikatzen da: ahuntz edo katu itxurarekin. Ablitasen (Nafarroa), uste zuten Santa Agata bezperako gauean banatzen zirela hurrengo urtebeterako ekaitzak.

Ospakizunak indar handia du Euskal Herrian. Historikoki, mutilak ziren kalerik kale herritarrei sosa eskatzeko. Gaur egun, koplak berritu dira, katolizismoak eraginda zeuden koplak zaharrak berritu ditu jende ugari. Tartean, Maialen Lujanbio bertsolariak. 2016an, genero-indarkeriari buruzko koplak batzuk sortu zituen, "Beti-bezperako koplak" deituak.



# EGITARAUA



## SANTA AGEDA EGITARAUA:

- Noiz: Otsailak 1an (zapatua)
- Batzeko ordua: Goizeko 10:30tan batu.
- Irteera ordua: 11:00 Ikastolako jantokiko plazan
- Amaiera: Santa Ana plazan 12:30ak inguruan. Bertan txokolate eta salda banatuko da.



Zorion etxe hontako danoi  
agur egitera gatoz  
Aterik ate ohitura zaharrak  
Aurten barrizteko asmoz.  
Ez gagoz oso aberats diruz  
ezta bere oinetakoz  
baina ezarriz sano gabiltza  
ta kanta nahi dogu gogoz.


Santa Ageda bezpera dogu  
Euskal Herriko eguna  
etxe guztiak kantuz pozteko  
aukeratua doguna.  
Santa maitea gaur hartu dogu  
geure bideko laguna  
haren laguntzaz bete daigula  
egun hontako jarduna.

## KALEJIRA-rako

Santa Ageda, Ageda  
bihar da Santa Ageda  
bihar da Santa, Ageda eta  
gaur haren bezpera gaba

Aintzat hartua izan dedila  
Etxe honetako jentia  
Pobre ta umil dabizenentzat  
Ba dauke borondatia.





# IBILBIDEA

## Orduategia:

- 10:30tan Kurutzia Ikastola: Jantokiko plaza.
- 11:00tan irteera kurutzia Ikastolatik

## Abesteko gunak

- Joxe Miel Barandiaran: Zaharren egoitza aurrean
- Ezkurdi
- Plateruen Plaza
- Andra Mari Basilika
- Udaletxea
- Santa Ana plaza amaitu eta txokolate beroa hartu.

